



ZORIONAK !!!!

Atzo, Irailak 26, Euskadiko Irakaskuntza pribatuko langileok argi eta garbi adierazi genuen ez gaudela prest gure hitzarmena galtzeko.

Greba egunak jarraipen itzela izan zuen, %80 gutxi gora behera, eta milaka pertsonak bete zituzten hiriburuetako kaleak. Beraz, greba deialdia arrakastatsua izan da oso.

Zorionak eman nahi dizkiegu sindikatuko langile- ordezkari eta afiliatu guztiei eta baita, oro har, sektoreko langileei ere; atzo neurria eman baitzuten. **ZORIONAK!!**

Primerako hasiera izan dugu. Atzo hasitako ibilbideari eutsi behar diogu eta sektoreko eta, batez ere, ikastetxez ikastetxeko mobilizazioei ekin behar diegu gure helburua lortu arte; Kristau Eskola eta IZEA Euskadiko hitzarmen berria benetan negoziatzera itzuli daitezen.

Hurbiletik jarraituko ditugu patronalak grebaren ondorioz egiten dituzten diru-kenketak gehiegizkoak izan ez daitezen

Gure lan baldintzak borrokatu!!! Murrizketarik Ez !!!



Oharra: Urriaren 15an sindikatu guztiek KE eta IZEAren kontra eta euskadiko hitzarmenaren alde sartutako gatazka kolektiboren epaiketa izango da.

[Irakaskuntza STEE-EILAS](#)

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org